# Zumaiatik aterata

Zumaia paraje pribilegiatu batean kokatua dago, natur ingurune paregabe batek inguratua. Azpimarratzekoa da bertan dugun geologia-ondare bikaina eta inguruetan topa ditzakegun paisaien aniztasun ikaragarria. Herrigunetik hurbil, aldaketa handirik izan ez duen eta bizigunerik ere apenas duen kostalde bat dugu, milioika urtetako historia geologikoaren altxor diren itsaslabar garaiek osatua, nazioartean erreferentzia garrantzitsu bilakatu direnak. Urola ibaia Zumaiako jardueraren ardatz izan da Zumaia herrigune gisa sortu zenez geroztik, eta hain zuzen ere, ibaiaren gerizpean hazi izan da herria. Era berean, herrigunetik oso hurbil dugun landa inguruneak tinko eutsi dio baserriko bizimoduari. Hori guztia batuz gero, ingurune paregabea osatuko dugu paseorako eta xendazaletasunerako, eta bertako kliman negu epelak eta uda leunak izaten ditugunez gero, urteko edozein garai une egokia izango da ezagutzeko eta ibiliz gozatzeko.

Gida honetan, ibilbiderik interesgarrienak proposatzen dira, eta horiek ingurune natural eta kultural honetako baliorik nabarmenetako batzuk ezagutzeko aukera emango digute. Ibilbideen abiapuntua Narrondo ibaiaren gaineko oinezkoen zubia da. Ibilbide bakoitzean erakargarriena iruditu zaigun norabidea markatu da. Oro har, ez da asfaltatutako biderik erabili, ahal izan denean behintzat. Dena den, erabilitakoak trafiko gutxikoak dira. Ibilbide bakoitzak laguntzarako zenbait piktograma daramatza berarekin, bidegurutzeak eta saihesbideak eskematikoki adierazteko. Zenbait ibilbide itsaslabarren ingurutik gertu pasatzen dira eta, beraz, kontu handiz ibili beharko da leku horietan. Azkenik, ibilbide bat egiten ari garenean, natura eta leku bakoitzeko bizimodua errespetatu behar dela gogoratu nahi dizuegu.

# Partiendo de Zumaia

Zumaia se halla situada en un emplazamiento privilegiado y rodeada por un entorno natural extraordinario. Destaca además por poseer un patrimonio geológico excepcional y por la gran variedad de paisajes presentes en sus inmediaciones. Encontramos junto a la población una costa poco alterada y escasamente habitada, compuesta por elevados acantilados que atesoran una historia geológica de millones de años, y que son una referencia a escala internacional. La ría del Urola ha sido además eje de la actividad de Zumaia desde su nacimiento, y el espacio junto al cual ha crecido la población. Igualmente, un entorno rural situado a un paso del núcleo urbano mantiene su carácter agrícola. Todo ello forma un medio excepcional para el paseo y el senderismo, y que gracias a un clima de inviernos moderados y veranos suaves hace de cualquier época del año un momento oportuno para conocerlo y disfrutar recorriéndolo.

En esta publicación se proponen aquellos recorridos más interesantes y que permiten conocer algunos de los valores más destacados del entorno natural y cultural de Zumaia. Todos los recorridos aquí descritos tienen su inicio en el puente peatonal sobre el río Narrondo. En cada itinerario se ha marcado la dirección que se ha estimado más atractiva. Normalmente se han evitado las vías asfaltadas, aunque no siempre ha sido posible, si bien los tramos aquí incluidos tienen escaso tráfico. Cada ruta adjunta una serie de pictogramas de ayuda que muestran esquemáticamente los cruces de caminos y los desvíos que hay que tomar. En varios recorridos se accede a zonas de acantilados, por lo que es necesario extremar la prudencia en su cercanía. Por último, nunca está de más recordar que cuando caminamos debemos respetar la naturaleza que visitamos y los modos de vida de cada lugar.

# Zumaia

## Oinezko ibilbideak Rutas a pie





zumaia · Zumaiako Udala · GIPUZKOA · euskadi made in

## 1 Zumaia, itsasadarra eta itsasoa
### Zumaia, ría y mar

6,8 km · 2 h

Zumaiako hiribilduko lehen biztanleen jarduera nagusia nekazaritza izan zen, baina Zumaiako herriak, betidanik, industria, ontzigintza eta portu jarduera handia ere izan du. Historian zehar -hiribildua sortu zenetik, seguruenik-, eta gaur egunera arte, ontzigintza oso jarduera garrantzitsua izan da Urolaren ibaiertzean. Esate baterako, XVI. eta XVII. mendeetan, Zumaia Gipuzkoako ontzigintza gune nagusietako bat izan zen. Eta horretaz gain, duela hamarkada gutxi batzuk arte, probintziako portu garrantzitsuenetakoa ere izan zen merkantzien trafikoan, eta alde horretatik, aipamen berezia merezi dute ibaian gora kokatutako burdinolek eta fabriketan ekoitzitako burdinak eta porlanak.

Zumaian egin daitekeen ibilbiderik errazena eta lasaiena itsasadarrean zehar Urola ibaia itsasoratzen den lekuraino doan ibilbidea da. Urola ibaiaren aldamenetik haren bokaleraino doan ibilbidea antzina ontzigintza-jarduerarako gune nagusi izandakotik barrena doa. Lehen zatian, Zumaiako kai zaharreko guneak, Urola ibaiari hartutako lurrak eta ibaiaren estuarioa zeharkatuko ditugu, eta kai-mutur edo dike berriraino helduko gara. Lehen zati hori amaitu eta gero, itsasadarraren beste aldera joan eta ontziolak, kirol portua, lehengo paduratik geratzen den zatia -Zuloaga museoaren eta lehengo barraren ondoan- ikusiko dugu eta eskoilera berriraino iritsiko gara. Ibilbide osoa egin dezakegu, joan eta etorri, alegia; baina udan beste aukera bat ere badago: Txomin Agirre kaia eta Santiagoko hondartza lotzen dituen ontzia hartu eta zirkuitu konbinatu zoragarria egitea.



Urolako bokalea - Desembocadura de Urola



Zumaia eta bere itsasadarra - Zumaia y su ría

La primera dedicación de los habitantes del núcleo de Zumaia fue la agricultura, pero la población nació también con vocación portuaria, naval e industrial. La construcción de barcos ha sido muy importante en las riberas del Urola probablemente desde la fundación de la villa y a lo largo de toda su historia. Así, por ejemplo, durante los siglos XVI y XVII, Zumaia se situaba entre los centros de construcción naval más importantes de Gipuzkoa. Zumaia fue también uno de los puertos principales de la provincia en el tráfico de mercancías hasta hace varias décadas, con especial mención al hierro y al cemento que producían las ferrerías y fábricas situadas aguas arriba.

El recorrido que a continuación se propone es el más sencillo y relajado que ofrece Zumaia. El paseo completo por la ría del Urola hasta su desembocadura discurre por la que antaño fue su principal zona de actividad de construcción naval. En un primer tramo se recorren los espacios que ocupaba el antiguo puerto de Zumaia, los ensanches ganados al cauce del Urola y su estuario, y el nuevo espigón o dique rompeolas. Una vez concluida esta parte se continúa por el otro lado de la ría, y se bordean los astilleros, el puerto deportivo, las marismas remanentes junto al museo Zuloaga y la antigua barra, hasta que finalmente se llega a la escollera. El recorrido se puede hacer completo de ida y vuelta, si bien, en los meses de verano es posible aprovechar el servicio de motora que une el muelle Txomin Agirre con la playa de Santiago, y hacer así un circuito combinado muy atractivo.

## 2 Talaimendi - Algorri
### Ibilbide geologikoa / Ruta geológica

4 km · 1 h 40'







Bigarren ibilbide honek aukera paregabea ematen digu Zumaiatik gertuen dauden itsaslabarrak ikusteko. Altxor geologiko apartak dira, orain dela gutxi arte urrunetik etorritako geologia-aditu bakan batzuk bakarrik ezagutzen zituztenak, baina sekretu liluragarriak gordetzen dituzte. Egokiena ibilbidea itsasbeheran egitea da, aldi horretan agerian geratzen den marearteko zabalgune zabala ikusi ahal izango baitugu. Hemen proposatzen dugun ibilbide hau herrigunetik gorantz doa Talaimendiraino, Zumaiako antzinako talaiaraino. Euskal kostaldean dauden beste talaia asko bezala, baleak ikusteko eta kostaldean gertatzen ziren gauza guztien berri emateko erabiltzen zen Erdi Arotik aurrera. Ibilbidea Itzurun hondartzaren gainaldetik doa gero, eta itsaslabarren gailurrak zeharkatzen ditu Algorriko puntaraino. Ibilbideko gauzarik nabarmenenetako bat haitzen egitura berezia da, flysch izenekoa, elkarren segidan doazen geruza gogor eta bigunez osatua (hareharri eta lutiten estratuak dira). Geruza horiek duela milioika urte sedimentatu ziren antzinako itsasoaren hondo-hondoan. Geruza horiek, lurpean geratu eta arroka bihurtu ondoren, mugitu egin ziren Lurraren barne-dinamikaren ondorioz, eta hala, azaleratu eta itsasoaren higadura-lanaren mende geratu ziren: olatuek, labanak balira bezala, haitzen aurrealdea moztu eta urradura plataforma horizontal bat eratu dute, eta, ondorioz, itsaslabar bertikal bat, olatuek ekiten duten mugan. Algorriko lur-muturrean, itsas azpitik azaleratutako geruza horien artean, duela 65 miloi urte sortutako geruza bat dago, eta garai hartan Lurrarekin talka egin zuen meteorito baten partikulak ditu. Ziurrenik, talka horrek eragingo zuen planetako espezieen bosgarren desagerpen handia. Badira beste bi geruza bertikal Itzurun hondartzaren alde banatara, mundu osoan erreferentzia gisa erabiltzeko estratotipo ofizial izendatuak, azaleratze horien kalitatearengatik. Ingurune honi eta bertako geologia interesgarriari buruzko informazio gehiago izateko, egokiena Algorri Ezagutza Etxera joatea edo Zumaiako turismo bulegoak horretarako propio antolatzen dituen bisita gidatuak egitea da (ikusi **www.flysch.com**).



Itzurun

El siguiente recorrido nos descubre los acantilados más próximos al centro de Zumaia, un tesoro geológico hasta hace poco solo conocido por expertos en geología llegados de lejos, y repleto de sorprendentes secretos. Es recomendable hacer este paseo en marea baja para poder observar así la extensa rasa mareal que el mar deja al descubierto. La ruta aquí propuesta asciende desde el núcleo de Zumaia al monte Talaimendi, antigua atalaya de Zumaia, y que como otras tantas de la Costa Vasca sirvió para avistar ballenas e informar de todo lo que acontecía en la costa. La ruta discurre después sobre la playa de Itzurun, y recorre toda la línea de acantilados hasta la punta de Algorri. Algo que llama mucho la atención es la estructura de las rocas, formación denominada flysch, y que consiste en una alternancia de capas duras y blandas (estratos de areniscas y lutitas), sedimentadas hace millones de años en las profundidades del mar. Estas capas, una vez enterradas y transformadas en rocas, fueron desplazadas por la dinámica interna de la Tierra, que las levantó hasta que quedaron expuestas a la acción erosiva del mar, que ha modelado una plataforma de abrasión y un frente de acantilados. En la punta de Algorri, entre el conjunto de estratos que afloran junto al mar, se encuentra una capa de 65 millones de años de edad, y que contiene partículas pertenecientes a un asteroide que impactó con la Tierra en aquel tiempo remoto, y que probablemente causó la quinta gran extinción de la historia de la vida en el planeta. Otras dos capas verticales situadas a un lado de Itzurun han sido establecidas como estratotipos oficiales de referencia mundial por la calidad de los afloramientos. Para conocer más sobre este medio y su interesante geología conviene acudir al Centro de Interpretación Algorri o participar en las visitas guiadas que regularmente organiza la oficina de turismo de Zumaia (ver **www.flysch.com**).

## 3 Zumaia - Elorriaga - Pikote

9,1 km · 2 h 30'




Ibilbide honek duen bertuterik handienetako bat, hain zuzen ere, Zumaiako parajerik ederrenetako batzuk ikusteko aukera eskaintzea da, esate baterako, Urola itsasadarra, Elorriaga aldera ditugun muino leun eta baserriak eta, azkenik, itsaslabar harrigarriz jositako kostaldea. Ibilbideari ekin eta Foronda jauregia inguratu ondoren, lehen igoera, Amezmendin barrena doana, argi bereizten ez den bidezidor batetik doa; beraz, kontuz ibili behar da bide onetik joateko. Hortik gora eginez, itsasadarraren ikuspegi desberdinak erakusten dizkiguten zenbait leku daude. Horietatik begiratuta, Zumaia duela mende batzuk nolakoa izan zen ikus dezakegu: harresi batek inguratutako etxe multzo txikia, inguruan itsasadar zabala eta itsasgoran urak hartzen zituen padurak zituela. Gora eginez, ingurune polita izango dugu ikusgai: han-hemenka baserriak dituzten mendi muino biribilak. Bideak gora egiten du Elorriagaraino. Baserri kutsuko landa-ingurune honetan, San Sebastian ermita txikia bisita dezakegu, baita mokadutxo baten bidez indarrak hartu ere bertako tabernan. Hortik hasiko gara itzultzen, itsasorantz hurbiltzen den bide batetik. Ibilbidea lau samarra da hor, ia bat-batean Pikote baserriaren ondoan itsaslabar handi batekin topo egin arte. 150 m garai da Pikote baserriaren ondoko itsaslabar bertikala, eta hortik bi aukera ditu ibilbideak: errazena (A aukera) baserritik Zumaiara itzultzen den pista hartzea da; bestea (B aukera), zailagoa, itsaslabarraren ertzetik itzultzea da. Bigarren aukera hartuz gero, kontuan eduki behar da zenbait lekutan bidea ez dagoela ondo markatuta, itsaslabarraren ertzetik doala eta aldapak oso handiak direla. Bigarren bide hau aukeratzen badugu, ez atera bidetik eta ez zapaldu inguruko larreak eta lursailak.



Algorriko muturra eta itsaslabarrak - Punta de Algorri y acantilados

La gran virtud de este paseo es permitirnos saborear en poco tiempo los paisajes más representativos de Zumaia, como son la ría del Urola, las suaves colinas y caseríos camino a Elorriaga y, finalmente, la costa de imponentes acantilados. Una vez iniciado el recorrido y tras rodear el palacio de Foronda, la primera subida por Amezmendi presenta un breve tramo de sendero poco marcado, por lo que hay que prestar un poco de atención para seguir bien la ruta. Pronto ascendemos a varios puntos que nos ofrecen una poco conocida vista de la ría, y desde donde podemos imaginarnos como fue Zumaia hace siglos: un pequeño núcleo de casas cercadas por una muralla y rodeado por una extensa ría con marismas que en marea alta se inundaban. Siguiendo por un agradable entorno de caseríos y colinas, el camino asciende suavemente hasta Elorriaga, tranquilo enclave rural entorno a la pequeña ermita de San Sebastián, que dispone también de una taberna donde reponer energías. Desde aquí el recorrido regresa acercándose al mar por un paisaje de contornos muy suaves, hasta que casi repentinamente, junto al caserío Pikote, nos sorprende un acantilado con una caída vertical de 150 m. Desde Pikote tenemos dos opciones para continuar la ruta: la más fácil (opción A) consiste en seguir por la pista que desde el caserío regresa a Zumaia; la otra (opción B) supone continuar por el borde del acantilado, teniendo presente que hay tramos donde el camino está poco marcado, bordea el precipicio y la pendiente es pronunciada. Si optamos por esta segunda senda es importante no salirse de la ruta ni invadir las praderas o terrenos contiguos.






Pikotegaina



Orrua - Zumaia

## 4 Zumaia - Artadi - Askizu

9 km · 2 h 20'




Oso ibilbide erraza da, oso bista ederrak dituena. 200 metroko altueraraino iristen da eta txakolina egiteko mahastiak zeharkatzen ditu. Ibilbidearen lehen zatia Artadirako errepidetik doa, baina ez dauka eragozpen handirik: azkar egiten da, ez dauka trafiko askorik eta artadi eder bat zeharkatzeko aukera ematen du. Artadi utzi eta minutu batzuk geroago, bideak gora egiten du berriro. Laster, Garate gainera iristean, bista paregabeak izango ditugu: Oikia, Urola ibarra, Izarraitzeko mendigunea, Indamendi, eta inguruko beste zenbait mendi. Artadi kantauriarra atzean utziko dugu berehala, eta txakolinetarako mahastiak pixkanaka-pixkanaka nagusitzen joango zaizkigu. Izan ere, gero eta mahasti gehiago dago Getariako inguruko kostaldeko parte honetan eta beste zenbaitetan. Ibilbidea irailean edo urrian egiten badugu, mahats-bilketa ikusi ahal izango dugu. Aste gutxi batzuk geroago izango dugu emaitza: ardo ondu gabea, orain dela gutxi arte paraje hauetan bakarrik egiten zena, gero eta izen handiagokoa. Ibilbideari jarraituz Askizuko auzora iritsiko gara. Duela mende bat arte -errepide berria egin zen arte-, ezinbestean igaro behar zen bertatik, kostaldeko bidea hortik baitzihoan. Hemendik aurrera, Kostako Done Jakue Bidearekin bat eginda joango da gure ibilbidea. Bueltako ibilbide guztian zehar Zumaiako bista zoragarriak izango ditugu, eta ibilbidea egin ahala, leku pribilegiatuan kokatuta dagoela ohartuko gara.

Recorrido muy relajado, que poco a poco asciende hasta los 200 m de altura, y que desde diversos puntos nos ofrece excelentes vistas, además de acercarnos a los viñedos de txakoli. El primer tramo de subida discurre en parte por la carretera a Artadi, pero esta sección sobre asfalto se recorre pronto, tiene escaso tráfico y guarda el aliciente de atravesar un magnífico bosque de encinas. Unos minutos después de dejar Artadi la ruta continúa en ascenso. Pronto, llegando a Garate gaina, disfrutaremos de unas bellas vistas de Oikia, el valle del Urola, el macizo de Izarraitz, Indamendi y otros montes cercanos. Enseguida dejamos atrás al encinar cantábrico, y comienzan a adquirir protagonismo los viñedos de txakoli, que cada vez ocupan una mayor extensión en esta y otras zonas de la costa en las cercanías de Getaria. Si hacemos la travesía en septiembre u octubre podremos coincidir con la vendimia; a partir de ese momento en unas pocas semanas habrá concluido la elaboración de este vino joven, hasta hace poco exclusivo de esta zona y en pleno auge. Continuando el recorrido pronto llegaremos al núcleo de Askizu, que fue paso obligado del camino de la costa hasta hace poco más de un siglo, cuando la construcción de la nueva carretera lo dejó relegado. Desde aquí nuestro itinerario converge con el Camino de Santiago de la Costa. Este trayecto de vuelta nos ofrece unas magníficas vistas de Zumaia y recorriéndolo podremos atestiguar su ubicación privilegiada.






# 5 Zumaiari bira Vuelta a Zumaia

18,5 km

5 h %97




Zumaiako Indamendi elkarteak urtero egiten duen "Zumaiari bira" ibilbidean oinarrituta dago. Oso ibilbide erosoa da, zementuzko eta asfaltozko bideetan zehar doa gehienbat, eta ezin hobeto biltzen ditu kostaldearen eta barnealdearen alderdirik erakargarrienak. Ibilbidean zehar bi aldiz gurutzatzen da Urola ibaia, eta zenbait landa-auzo zeharkatzen dira: Artadi, Oikia, Ibañarrieta eta Elorriaga. Mendi eta baserri ingurunea zeharkatzen ditu, eta guk erlojuaren orratzen norabidean egitea proposatzen dugu, ibilbideak dituen aldapak alderik errazenetik igoz. Ibilbide hau mendiko bizikletan ere egin daiteke. Dena den, erosoago izan dadin, ibilbidea hemen proposatutakoaz bestelakoa egin daiteke bi zati txikitan: erdibidean, hobe da Arroara joan eta geroxeago hortik jarraitzea; eta ibilbidearen azken zatian, zuzenean Zumaiara doan pista asfaltatuari jarrai diezaiokegu.






Ollaortzagain



Itzurun - San Telmo

Recorrido inspirado en la "Vuelta a Zumaia", realizado anualmente por el club de montaña Indamendi de Zumaia. Es una excursión muy agradable que combina muy bien los atractivos de la costa y del interior, y que discurre por lo general por pistas de cemento o asfalto. A lo largo de la caminata se cruza dos veces el río Urola y se atraviesan los pequeños núcleos rurales de Artadi, Oikia, Ibañarrieta y Elorriaga, todo ello a través de un entorno de montes y caseríos. En función de las pendientes que presenta el itinerario proponemos hacer la ruta en el sentido de las agujas del reloj. El recorrido es también apto para bicicleta de montaña, aunque para hacerlo cómodamente se puede optar por desviarse del trazado aquí propuesto en dos breves tramos: en la mitad del recorrido conviene tomar la dirección de Arroa y enlazar con el recorrido poco después, e igualmente, al final de la ruta se puede seguir la última pista asfaltada que llega directamente a Zumaia.

# 6 Deba - Zumaia

## Flyscharen ibilbidea / Ruta del Flysch

15 km

5-6 h




GR 121






Santa Katalina - Deba

Gero eta jende gehiagok egiten duen txangoa da; izan ere, Euskal Herriko kostaldeko lekurik zoragarri eta interesgarrienetako bat ezagutzeko aukera emango digu, orain berriki kostaldeko biotopo izendatu duten Deba-Zumaia natur ingurunean barneratzen baita. Ibilbide honi esker, ordu batzuetan, gure planetaren historiako 50 milioi urte baino gehiago geruzaz geruza biltzen dituzten estratuen hurrenkera etengabea ikusi ahal izango dugu. Debaren eta Zumaiaren arteko ibilaldiak ibilbide bat baino gehiago ditu -haitzetatik egiteko aukera ere badago-, eta, horietatik, hau da guk proposatzen duguna: GR 121 edo Gipuzkoako Bira ibilbideari jarraitzea. Beraz, ibilaldi honetan GRaren marka zuri-gorriei jarraitu besterik ez dago. Ibilbidea edozein noranzkotan egin daiteke, baina guk Debara Euskotrenez joan eta Zumaiara oinez itzultzea proposatzen dizugu. Era guztietako paisaiak ikus ditzakegun ibilbide honetan, kostaren gaineko hainbat talaiarekin egingo dugu topo, lehendabizikoa Santa Katalinako ermita. Ibilbidearen erdi aldera, merezi du GR une batez utzi eta Mendatagaina eta Sakonetako itsaslabar handi-handiak ikustea. Itsasbeheran, leku horretan bertan, marearteko zabalgune ikusgarria ere zeharka dezakegu: itsaslabar eder-ederrak daude, flysch-a agerian dutela. Gaur egun sinestezina iruditzen bazaigu ere, 1970eko hamarkadan, ingurune horretan zentral nuklear bat egiteko asmoa zegoen. Kostalde honen guztiaren inguruan hainbat istorio daude, estraperloari buruzkoak, olagarroaren arrantzari buruzkoak eta beste zenbait konturi buruzkoak. Ez dugu ahaztu behar, halaber, Zumaiako eta Debako turismo bulegoek, ibilaldi gidatu hau eskaintzen dutela (ikusi **www.flysch.com**), aukera ezin hobea bertako sekretu asko eta asko ezagutzeko.



Sakonetako punta - Punta de Sakoneta

Excursión cada día más popular que nos permitirá descubrir una de las zonas más bellas e interesantes de toda la Costa Vasca, y que se adentra en el recientemente declarado biotopo litoral de Deba-Zumaia. La ruta nos posibilita recorrer en unas pocas horas una sucesión continua de estratos que, capa a capa, suman más de 50 millones de años de la historia del planeta. La travesía entre Deba y Zumaia puede hacerse por diferentes rutas -e incluso por las rocas-, siendo una de ellas la que marca el trazado del GR 121 o Vuelta a Gipuzkoa, que es el itinerario que aquí sugerimos seguir. Por ello, tan solo hay que continuar las marcas rojiblancas del GR para completar la excursión. El recorrido se puede hacer en cualquiera de los dos sentidos, aunque aquí proponemos hacer primero la ida a Deba en Euskotren y regresar caminando hasta Zumaia. Desde la primera ermita de Santa Katalina, esta travesía nos deleita con las vistas desde numerosas atalayas situadas sobre la costa y con una gran variedad de paisajes. En la zona intermedia del recorrido merece la pena dejar momentáneamente el GR y acercarse al borde de los impresionantes acantilados de Mendatagaina y Sakoneta. También, en marea baja, en esta misma zona se puede recorrer un tramo espectacular de rasa mareal, donde aflora el flysch dando lugar a bellos acantilados. Aunque hoy día parezca increíble, en la década de 1970 en este lugar se proyectó la construcción de una central nuclear. Toda esta costa es rica también en historias diversas sobre el contrabando, la pesca del pulpo, y otras muchas más. No hay que olvidar también que las oficinas de turismo de Zumaia y Deba realizan periódicamente esta excursión guiada (ver **www.flysch.com**), inmejorable oportunidad para conocer muchos de sus secretos.

# 7 Zumaia - Zarautz

9 km

3 h




GR 121

Kostaldeko bi herri hauek ibilbide atsegin eta eroso bat eginez lot ditzakegu, bi herri horietatik barrena kostalde partetik doan GR-121 bidezidorrari esker. Euskotren konpainiak nahiz autobus konpainiak eskaintzen duten zerbitzuarekin osatzen badugu, denbora laburrean itzul gaitezke gure abialekura. Ibilbide honetan Gipuzkoako kultur paisaiarik berezienetako bat izango dugu lagun, hots, txakolinetarako mahastiek eskaintzen digutena, sarritan itsas bazterrean ere topatuko ditugunak eta inguru honi ospe handia eman diotenak.

Zumaiako Narrondo ibaiaren gaineko oinezkoen zubitik abiatu ondoren, itsasadarra inguratu beharko dugu Zuloaga museoaren aldamenean, eta bertan ekingo diogu Askizu aldera eramango gaituen aldapari. Ibilbidea ongi markatua dago, eta beraz, GR bideetako marka bereziei erreparatu besterik ez dugu izango. Ibilbidea, gainaldera iritsi ondoren, kostaldeko erlaitzean barrena doa; erliebe hori nagusituko zaigu Bidasoaren bokaletik hasi eta Gipuzkoako kostalde osoan. Poliki-poliki gora eginez, berehala ikusiko dugu Getariako erliebea beheko partean, baita San Anton mendi nabarmena ere. Garatemendi tontorrean, gure ibilbideko punturik garaienean, III. Gerra Karlistako (1871-1876) gotorleku baten hondakinak ikus ditzakegu; karlisten gudarosteek eraiki zuten Getaria bonbardatzeko, hura liberalen esku baitzegoen. Artelatz-basotxoak eta zuhaitz bakanak, Mediterraneo aldeko Europan oso ugariak izan arren, oso bitxiak dira gure latitude hauetan. Antzinako klima-baldintzak egungoak bezalakoak izan ez zirela frogatzen duten lekukoak dira. Ibilbidearen azken partean galtzada-harrizko tarte batzuk izango ditugu, eta Zarautzera eramango gaituen azken jaitsiera baino lehen, Santa Barbara ermitaren ondotik igaroko gara; toki horretan, une batez bidetik urruntzea merezi du, Zarauzko badiaren eta kostaldearen ikuspegi paregabeekin gozatzeko.



Getaria

Las dos localidades costeras pueden ser enlazadas en un agradable y cómodo recorrido gracias al trazado del sendero GR-121 que discurre por ellas en su travesía litoral. Combinándonos con el servicio de euskotren o autobús podremos también regresar a nuestro lugar de partida en poco tiempo. En este recorrido nos acompañará uno de los paisajes culturales más llamativos de Gipuzkoa, como son los viñedos de txakoli, situados en ocasiones incluso junto al mar, y que han dado gran renombre a la zona.

Desde el puente peatonal sobre el río Narrondo en Zumaia hay que bordear la ría hasta las proximidades del museo Zuloaga, punto en el que se inicia el ascenso en dirección a Askizu. El itinerario se encuentra balizado por lo que tan solo deberemos fijarnos en las marcas propias del GR. El camino, una vez ganada altura, discurre por el cordal costero, relieve que desde el Bidasoa domina la costa de Gipuzkoa. Asciende pausadamente y pronto observaremos el relieve de Getaria abajo con su característico monte San Antón. En la cima de Garategaña (Garatemendi), punto álgido de la ruta, se conservan las ruinas de un fuerte de la III Guerra Carlista (1871-1876), y que fue construido por las tropas carlistas con el propósito de bombardear Getaria, integrada en el bando liberal. Los bosquetes de alcornoques e individuos sueltos, propios de la Europa Mediterránea, son una especie muy rara en esta latitud. Su presencia es un testimonio de un pasado con condiciones climáticas muy distintas a las actuales. En el último tramo del recorrido hallaremos tramos de calzada, y antes de la bajada final a Zarautz el camino discurre junto a la ermita de Santa Barbara, punto al que merece la pena desviarse para contemplar las insuperables vistas de la ensenada de Zarautz y la costa.




## KONTUAN IZAN BEHARREKO AHOLKUAK

- Itsaslabarren ondotik gabiltzanean, arreta handiz ibili behar dugu, batez ere haurrekin edo talde batekin baldin bagoaz. Kontuan hartu behar dugu, gainera, itsaslabarren ertzak ezegonkorrak izan daitezkeela eta horien azpian luiziak izaten direla sarritan.
- Garraio publikoa oso baliagarria eta erosoa izango zaigu proposatutako ibilbideak egiteko.
- Errespeta dezagun zeharkatzen dugun landa-ingurunea edo natur ingurunea, larrediak, soroak, baratzak eta inguruko aziendak. Itxi ditzagun bidean topatzen ditugun langak eta atakak. Mendira gure zakurrarekin joaten bagara, inori enbarazurik ez egiten saiatuko gara, eta beharrezkoa bada, lotuta eramango dugu.
- Eraman dugun guztia ekarri behar dugu itzuleran: zaborra, ontziak, zigarrokinak eta abar.
- Errespeta dezagun landaretza naturala. Ez dezagun, halaber, zuhaitzetan, arroketan edo harrietan ezer idatzi, margotu edo grabatu. Ez dezagun alferrikako zaratarik egin eta goza dezagun soinu naturalak entzunez.
- Arropa eta oinetako egokiak eramatea komeni da, janari pixka bat eta behar den ur guztia, eta ibilaldi luzeetan ez zaigu gaizki etorriko botikin bat.
- Ibilaldia luzea bada, aurrez plangintza bat egitea eta meteorologia-zerbitzuak kontsultatzea komeni da.
- Ahal dugun guztia egin dezagun natura babesteko eta beste batzuek naturarekin gozatu ahal izateko.

## CONSEJOS A TENER EN CUENTA

- Cuando paseamos cerca de los acantilados debemos extremar la precaución para evitar caídas y accidentes, en especial si vamos con niños o en grupo. Hemos de tener en cuenta además que los bordes de los acantilados pueden ser inestables y que bajo ellos se producen frecuentes desprendimientos.
- El transporte público nos puede ser muy útil y cómodo para realizar los recorridos propuestos.
- Respetemos el entorno rural o el medio natural por el que discurrimos, los prados, cultivos, huertas y ganados de la zona. Cerremos las langas y portillos que encontremos en el camino. Si llevamos nuestro perro al monte, nos preocuparemos de que no moleste, y si es preciso lo ataremos.
- Debe regresar con nosotros todo lo que hemos traído: basura, recipientes, colillas, etc.
- Respetemos la vegetación natural. Tampoco escribamos, pintemos o grabemos en árboles, rocas o piedras. No provoquemos ruidos innecesarios y disfrutemos de los sonidos naturales.
- Es conveniente llevar vestimenta y calzado adecuado, algo de comida y agua de reserva, y en excursiones largas no está demás un botiquín.
- Si el recorrido es largo conviene planificarlo y consultar los servicios meteorológicos.
- Ayudemos en lo posible a conservar la naturaleza para que otros puedan seguir disfrutándola.

Xendazaletasuna Gipuzkoan / Senderismo en Gipuzkoa: www.gipuzkoaoinez.net
Turismoa Gipuzkoan / Turismo en Gipuzkoa: www.gipuzkoaturismo.net - www.urolaturismo.net - www.costavasca.org
Turismoa Euskadin / Turismo en el País Vasco: www.paisvascoturismo.net
Garraio publikoa / Transporte público: www.euskotren.es
Nekazalturismoa / Agroturismo: www.nekatur.net
Eguraldia / Meteorología: www.euskalmet.net

### TURISMO BULEGOA / OFICINA DE TURISMO

943 143 396 - turismoa@zumaia.net
**www.zumaia.net/turismoa**
**ORDUTEGIA** HORARIO
**GOI DENBORALDIAN** TEMPORADA ALTA
(15/06 - 15/09) 10:00-14:00 / 16:00-20:00
**BEHE DENBORALDIAN** TEMPORADA BAJA
(16/09 - 14/06) 10:00-14:00 / 16:00-19:00
Igande arratsaldetik astearte goiza arte ITXITA
De domingo por la tarde hasta martes por la mañana CERRADO

### ALGORRI EZAGUTZA ETXEA / CENTRO DE INTERPRETACIÓN ALGORRI

Juan Belmonte, 21 - 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
943 143 100 - algorri@zumaia.net
**www.algorri.eu**

### ZULOAGA MUSEOA / MUSEO ZULOAGA

Santiago Etxea. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Telf./fax: (+34) 943 143 396
museozumaia@ignaciozuloaga.com
**www.ignaciozuloaga.com**

### Flyscharen ibilbidea / Ruta del Flysch

Bisita gidatuak - Visitas guiadas
**www.flysch.com**

### TURISMO ZERBITZUAK / SERVICIOS TURÍSTICOS

**BEGI BISTAN**
Taldeentzako jarduerak - Actividades para grupos
T. 943 862 241 - **www.begi-bistan.com**

### OSTATUAK / ALOJAMIENTOS

**HOTELAK HOTELES**

1 H **HOTEL TALASOTERAPIA ZELAI**. Larretxo, 16 - T. 943 865 100
info@talasozelai.com - **www.talasozelai.com**

2 H **HOTEL ZUMAIA**. Alai auzategia 13.
T. 943 143 441 - zumaiahotela@euskalnet.net

**PENTSIOAK PENSIONES**

3 P **GOIKO**. Erribera, 9.
T. 943 860 078 / 696 584 804 - goikopentsioa@hotmail.com

**APARTAMENTUAK APARTAMENTOS**

4 AP **TOMAS**. Eusebio Gurrutxaga plaza.
T. 943 861 916 / 615 721 333

**NEKAZALTURISMOAK AGROTURISMOS**

5 **KARAKAS**. Artadi auzoa 26.
T. 943 861 736 / 639 676 444. **www.nekatur.net/karakas**

6 **SANTA KLARA**. Arritokieta auzoa.
T. 943 860 531 / 639 879 611 - info@santaklara.eu
**www.santaklara.eu**

**LANDETXEAK CASAS RURALES**

7 CR **JESUSKOA**. Oikia auzoa.
T. 635 758 849
jesuskoa@jesuskoa.net - **www.jesuskoa.net**

8 CR **LANDARTE**. Artadi bidea, 1
T. 943 865 358 - reservas@landarte.net - **www.landarte.net**

### ITSAS ZERBITZUAK / SERVICIOS NÁUTICOS

**ITXAS-JAI**
T. 943 192 858 / 678 517 257 / 605 761 662
itxasjai@telefonica.net - **www.itxasjai.com**

**ZARPAR**
Bisita gidatuak - Visitas guiadas
T. 696 570 217 - jasper@euskalnet.net
**www.zarpar.net**